



## IKERKETA-EGOERA EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAN

**Josu Perales**

*HABEko teknikaria*

Helbide elektronikoa: [J-Perales@habe.org](mailto:J-Perales@habe.org)

### 1. AURREKARIAK

Euskara helduaroan ikastea ez da lehenengo begiratuan irudi lukeen bezain gertaera berria. XX. mendearen hasieran hainbat eta hainbat liburu eman ziren argitara euskara irakasteko eta lantzeko asmoz. Garai hartako izenburuak oso esanguratsuaK dira: “Quiere Vd. hablar en euzkera? El vascuence al alcance de todos”, “El Euskera o el baskuence en 120 lecciones”, “Euzkel-Iztiya ó sea gramática de la lengua vasca según el método de Ollendorf”... Liburu horiek ikuspegi erabat gramatikala zuten. Latinarri begiratzeko eta aztertzeke erabiltzen ziren moldeek bizi-bizirik jarraitzen zuten, aurreko mendeetan bezala, Larramendiren “El imposible vencido” edota Lardizabalen “Gramática vascongada” liburuak lekuko.

R. María de Azkuek irakasle jardun zuen Bilbon, Unamunorekin lehian irabazitako katedran, 1936ra arte. Eta Donostian, Marzelino Soroa ere aritu zen euskara irakasten. Geroago, Toribio Alzaga antzerkigileak, *Euskal Iztundea edo Academia de declamación vasca* delakoan katedradunak, sona handia lortu zuen euskara-irakasle gisa ere (Mendiguren, 1990).

Elbira Zipitriak 1952-1953 ikasturtean alfabetatze-ikastaroa eman zuen Lazkaoko Beneditarren monastegian, ikasle bakarrak beneditar gaz-

teak zirelarik; igandeetan meza nagusiaren ondoren bildu ohi ziren. Zipitria andreak, bestalde, Donostian, Fermin Kalbetoneko bere etxebizitzan, eguna hurrekin eman ondoren, ikasle helduekin jarduten zuen gauez alfabetatzen nahiz euskalduntzen (Amundarain, 1991).

Zein irizpide metodologiko erabiliko zituzten aitzindari haiek zehazki ez jakin arren, ez dugu huts handirik egingo baldin eta esaten badugu gramatika-itzulpenezko metodoen nagusitasuna erabatekoa zela: aditz paradigmak, deklinabide-taulak...

Larreak 1900.etik 1986.era bitartean euskara ikasteko egindako 165 metodo ezberdin zenbatu zituen (2003), horietatik 138 azken berrogeita hamar urteetan argitaratuak (1936-1986), eta, gramatika-itzulpenezko metodoen nagusitasuna nabaria da horietan. Ez da harritzekoa. Hizkuntza zabalduenak ere (frantsesa, ingelesa...) latinari begira zeuden eta euskara, orobat, latinari eta hizkuntza horiei ere bai.

Euskara helduei irakasteko metodologiak, oro har, bi zutabe nagusi izan ditu azken 25 urteotan: bata aurrerabide gramatikala –gramatikako egiturak errazenetik zailenera sailkatuta, ariketak...–, eta bestea, euskaraz komunikatzeko ahalmena, batez ere aho-belarrizko trebetasunak, lantzeko joera gero eta handiagoa. Horrekin batera, argi ispilatzen dira euskararen irakaskuntzan, hizkuntza hedatuenean irakaskuntzan izan ohi diren boladan boladako joerak ere. Gramatika nagusi zen garaian euskararen irakaskuntzan ere gramatika zen nagusi. Audiolingualismoak ingelesaren irakaskuntzan menta izan eta, euskarari dagokionez ere, halatsu. Zer esanik ez hurbilbide komunikatiboei edota atazatan oinarritutako irakaskuntzari bagaiozkie. Gure alorrean ez dira gutxi behin eta berriro ohartarazten dutenak arriskutsua dela beste inguruneetan erabilitako moldeak gurean besterik gabe itsu-itsuan baliatzea.

Euskalduntze-alfabetatzeak baditu ezaugarriak bere-bereak, beste hizkuntza ikas-prozesuekin alderatuta, jite propioa ematen diotenak<sup>1</sup>. Esan gabe doa: azterlan-bilduma sendo batek, ikerketa-lerro sendo batzuek, erabaki asko hartzen lagunduko ligukete. Baina, ikerketen alorra ahulune dugu oraindik, apurka-apurka indarra hartzen ari bada ere,<sup>2</sup> gero ikusiko dugunez. Eta badaude ahulezia horretarako hainbat arrazoi.

Alfabetatzea Euskaltzaindiaren gerizpean jarri zen ibilian. Euskaltzaindiak Alfabetatze Sailaren oinarri arauak 1972an plazaratu zituen. Horien arabera, Alfabetatze Saila hiru azpisailetan egituratua zegoen: 1) Gidaritza-saila; 2) Bulego-saila eta 3) Irakasle-saila, irakasleek berek osatua, eskualdeka idazkari bana eta horien artean idazkari nagusi bat izanik. Zereginak ziren: irakasleen arteko harremanak ugaritzea, egindako lanen eta esperientzien berri elkarri ematea, irakasle berrien ikastaroak antolatzea...

1975eko otsailean berrogeiren bat irakasle Arrasaten bildu ziren eta bilera hura giltzarri gertatu zen gau-eskolen mugimenduaren sorreran (Odriozola, 1976). Eraketa-gaiak jorratu zituzten eta, irakasleei dagokie-

---

*Euskara helduei irakasteko metodologiak, oro har, bi zutabe nagusi izan ditu azken 25 urteotan: bata aurrerabide gramatikala –gramatikako egiturak errazenetik zailenera sailkatuta, ariketak...–, eta bestea, euskaraz komunikatzeko ahalmena, batez ere aho-belarrizko trebetasunak, lantzeko joera gero eta handiagoa.*

***Euskalduntze-alfabetatzeak baditu ezaugarriak bere-bereak, beste hizkuntz ikas-prozesuekin alderatuta, jite propioa ematen diotenak . Esan gabe doa: azterlan-bilduma sendo batek, ikerketa-lerro sendo batzuek, erabaki asko hartzen lagunduko ligukete. Baina, ikerketen alorra ahulune dugu oraindik, apurka-apurka indarra hartzen ari bada ere, gero ikusiko dugunez. Eta badaude ahulezia horretarako hainbat arrazoi.***

nez, ikastaroak, hizkuntza eta kultur gaien ingurukoak baita noizbehinkako aldizkariren bat plazaratzea ere proposatu zuten. Bistan denez, irakasleen prestaketa, irakasteko teknikak eta horien gaineko gogoetak zabaltzea, esperientziak elkarrekin trukatzeara... oso aintzat hartzen ziren.

Hasi ziren irakaskuntza-datuak era sistematikoan biltzen, aztertzen eta horien gaineko gogoetak egiten. 1976-1977 ikasturtean Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) jasotako ikasle-fitxak *Siadecok* aztertu zituen (1978). Txosten hartan Euskal Herri osoan euskara ikasten ziharduten 30.000 helduren berri eman zen. Ikasleria oso zen gaztea. Hegoaldeko lau lurraldeei dagokienez, ikasleen % 52 15etik 24 urtera bitartekoak ziren; eta bazegoen 15 urtetik beheragoko ikaslerik; % 60 emakumezkoak ziren eta % 40 gizonezkoak; % 47 jende ikaslea zen eta % 53 enplegatuak.

Txostenean bertan adierazten denez, datu horiek AEK erakundean euskara ikasten ari ziren ikasleena ziren soilik. Baina, ibili zen ikasle gehiagorik garai hartan euskara ikasten, *Euskarazaleak* elkarteak eginiko ikastaldietan, EUTGn -500 euskara-ikasle zituen garai hartan EUTGk (Zalbide, 1977)-, IPESen, Lankide Aurrezkiak antolaturiko ikastaldietan, ikastoletako haurren gurasoentzako saioretan, Donostiako Udalaren Escuela de Declamación Vasca - Euskal Iztundea delakoaren eskoletan, Lazkaoko eskolan eta abarretan.

Lorpen-emaitzei dagokienez, ez ziren antza gogobetetasun osokoak:

Irakasle jendea ez dago -ez gaude- hain gustora lortzen diren errendimenduez. Inkesta bidez, berrikitan, honako hau galdetu izan zaie irakasleei: ea berekin ikasten hasten direnetarik zenbatek bukatzen duen euskara ikasiz, hizketan alegia. Irakasle mordo handi batek, hasiberriak direlako edo, ez du erantzuten. Erantzuten dutenentarik, ia denek % 10 eta % 30 arteko zifrak (biak barne) agertzen dituzte. (Zalbide, 1977: 133).

Egoera politikoa aldatu zen eta Eusko Jaurlaritzak HABE erakundea jarri zuen ibilian 1981ean, eta 1983an azaroaren 25eko 29/1983 legea plazaratu zuen Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak araupetzekoa.

Ez zen lege horretan ikertzeko beharra saihestu. Aitzitik, ikerketa zeregin nagusienetako bat zen. Zioen adierazpenean bertan honela irakur daiteke:

Gehienbat herrilanari, unibertsitari, langile, oraindik bere lehenengo lan-tokira iritsi gabeko gazte, etxekoandre, etabar izango diren garaadinekoengana euskeraren irakaskuntza heleraztea du helburu eta, hori guzti hori<sup>3</sup>, bigarren hizkuntzen irakaskuntzarako teknikabideekiko ikerketa, irakaspideekiko azterlanak, entzun-ikuste bidezko

baliapidea, irakasleak gertatzea eta gaitzea bezala horri datzekon aurrerapide guztiekin batean, eta hoiei guztiei Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea –HABE– Sortarazi eta Euskaltegiak Araupetzeaz baliatuz bideak ematen zaizkiela.

Eta egitekoak zehazterakoan ere, I. idazpuruan, bigarren ataleko b) puntuan, euskarazko eta gaztelaniazko bertsoetan:

Ikasketaren sustapena, eta bere helburuak lortzeko bideak, ihardute-erak eta baliapideak bilatzea.

El fomento de la investigación y la búsqueda de vías, métodos e instrumentos adecuados para el cumplimiento de sus fines.

1983an Zutabe euskalduntze-alfabetatzearen aldizkariaren lehenengo alea plazaratu zen eta euskalduntze-alfabetatzearen gaineko gogoe-tak, deskribapen-lanak, ikerketa xumeak eta kanpoko adituen artikuluen itzulpenak plazaratzen hasi ziren. Lau urte geroago, 1987an, AEK-k argi-tara emandako ELE aldizkaria ere plazaratzen hasi zen (1987-1999) hel-buru bertsoekin.

## 2. IRAKASLERIAREN PRESTAKETA FUNTSEZKO ZUTABE IKERKETAREN ALORREAN

Irakasleen prestaketa dimentsio berria hartuz joan zen. Gero eta usuago antolatzen ziren hitzaldiak, ikastaldiak, mintegiak..., zenbaitetan oso egi-tura formalak hartuz: Euskalduntze eta alfabetatzerako diploma EKBk eta AEK-k sortua (Jauregi, 1999), eta, bigarren hizkuntzen irakaskuntza-rako irakasleen formazioa: euskara, (1992-1997) EHU-UPVk (HIZPEI) eta HABEk antolatua (Etxeberria, F. 1999).

Euskalduntze-alfabetatzearen gaineko ikerketen zenbatekoa eta nolakoa besoz beso etorri dira Euskal Herriko unibertsitateetan hizkun-tzalaritzan, soziolinguistikan, psikologian eta pedagogian egindako urra-tsekin batera baita, ezbairik gabe, sektorean zuzen-zuzenean partaide direnen –irakasleen eta teknikarien– prestaketa gero eta hobearakin.

EAEn, irakasleen zenbatekoa ikasle-kopuruaren araberakoa izaten da. Horrela, 1609 irakasle aritu dira, batez beste, azken bederatzi ikastur-tetan. Euskara-irakasleria aski talde egonkorra da, gero eta esperientzia handiagokoa. Ulertzekoa denez, euskaltegietan lehenengo aldiz irakas-ten hasten direnak oso gutxi dira orain dela 15-20 urte hasten ziren ira-kasle-andana haiekin alderatuta.

---


*Egoera politikoa aldatu zen eta Eusko Jaurlaritzak HABE erakundea jarri zuen ibilian 1981ean, eta 1983an azaroaren 25eko 29/1983 legea plazaratu zuen Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak araupetzekoa.*

*Ez zen lege horretan ikertzeko beharra saihestu. Aitzitik, ikerketa zeregin nagusienetako bat zen.*

Ikasturtea	Ikasleak	Batez besteko adina	Irakasleak	Batez besteko adina
1997-1998	42.064	29	1.836	32
1998-1999	41.753	30	1.819	32
1999-2000	41.837	31	1.775	33
2000-2001	37.141	32	1.659	34
2001-2002	33.993	33	1.531	35
2002-2003	33.168	33	1.423	36
2003-2004	35.337	33	1.411	37
2004-2005	37.862	34	1.504	37
2005-2006	39.530	34	1.523	38

2005-2006 ikasturtean goi-mailako eta maila ertaineko ikasketa akademikoen jabe ziren irakasleak % 89ra iritsi ziren. Lizentziadunak % 48,3tik % 57,2ra pasatu ziren bost ikasturteren epean. Asko dira “bigarren karrerak” ikasten ari direnak baita graduondoko ikasketa osagarriak burutzen ari direnak ere. Izan ere, gero eta zailagoa da aurkitzen irakasleren bat inoiz formazio etengabearen alorreko saioren bat edo beste burutu ez duena.

**Irakasleen ikasketa-mailaren bilakaera 2001-2006 ikasturteetan EAEn**



### 3. IKERGAI NAGUSIAK

Gaur egun ikerketa-lerrotzat har genezakeen azterlan-bilduma gero eta naroagoa ari da osatzen gurean: motibazio eta jarrerai buruz ari gara. Motibazioa da ezbairik gabe euskalduntze-alfabetatzean gairik ikertu-netakoa. Motibazioa aspaldidanik izan da kezka-iturri irakasleonean. Euskara-irakasleen prestakuntza-beharrak zehazteko galdesorta batean

(HABE, 1997), 1456 irakasleren lagina baliatuta, “ikasleak nola motibatu” gaiari aitortu zitzaion lehentasunik handiena.

Badira ia 25 urte Perez de Arribek, Gasteizen, 1983-1984 ikasturtean, euskaltegi-tako ikasleek euskara ikasteko zituzten arrazoiak aztertu zituenetik (Perez de Arribe, 1986). 1983-2003 bitartean motibazioak aztertzeko burutu ziren hamar azterlan<sup>5</sup> begiratu genituen (Perales, 2004) eta ondorio nagusiak hauexek izan ziren<sup>6</sup>:

- Metodologiari dagokionez, lan guztiak kuantitatiboak izan dira, galdesortaren teknika erabili da, eta, datuen analisi estatistikoa egin da gero. Batzuetan ehuneko soilak besterik ez dira eskaintzen. Beste batzuetan, berriz, erregresioak eta ekuazio estrukturalen analisiak ere egin dira.
- Helduen euskalduntzean motibazioa aztertzeko egin diren lanetan noranzko integratiboa eta instrumentala hartu dira, oro har, kontuan. Eta bistan da noranzko integratiboa instrumentalari gailentzen zaiola.
- Bost azterlanetan (Arratibel, 1994, 1999; Perales, 1989, 1996, 2000) aztertu dira motibazioaren alorreko aldagaiekin batera ikaslearen lorpen-emaizak. Urratsa horietako bitan; ikaslearen autoebaluazioa bitan; irakaslearen ebaluazioa hirutan, eta, mintzamina, idazmena, irakurmena eta gramatika-ariketa batean. Motibazioaren alorreko aldagaien eta lorpen-emaizten arteko erlazio hori ez da beti era sendoan bistaratu. Azterlan batzuetan ez da ageri, eta, ageri denean, ez dira izan lorpen-emaiztei eragiten dieten aldagai askerik behinenak.
- Aurrekoaren haritik, motibazioaren alorreko aldagaiaren eta lorpen-emaizten arteko erlazioa bistaratu denean, motibazioaren intentsitatea eta motibazioaren noranzko integratiboa dira lorpen-emaiztekin lotura erakutsi duten aldagaiak. Lotura-falta edota espero genezakeena baino ahulago izatea bat dator gurearekin antzik handiena duen beste testuinguru batean berriki egindako azterlan baten datuekin. Pritchard-ek eta Newcombe-k (2001) galesa ikasten ari ziren helduen motibazioa aztertu zuten eta beren ondorioa izan zen noranzko integratiboa noranzko instrumentalari nagusitzen zaiola, eta, ez zegoela loturarik bi noranzko horien eta emaizten artean (Perales, 2004: 31).

Eta puri-purian jarraitzen du euskara ikasteko motibazioaren noranzkoei begiratzeko joerak (IKEI<sup>7</sup>, 2003; Etxeberria, A. 2005; Otegi, 2006). Euskalduntze-alfabetatzean ardatza ez duten azterlanetan ere kontuan hartzen dira euskara ikasteko arrazoiak<sup>8</sup>.

Antzera mintzo gintezke jarrerrei dagokienez ere. Aldizkari honen 40. alean Euskal Herriko hizkuntz jarrerrei egin genien begiradan, hogeita zazpi azterlan berrikusi genituen horietako zazpi bete-betean euskalduntze-alfabetatzean lekutuak (Perales, 2001a).

---

*Euskalduntze-alfabetatzearen gaineko ikerketen zenbatekoa eta nolakoa besoz beso etorri dira Euskal Herriko unibertsitateetan hizkuntzalaritzan, soziolinguistikan, psikologian eta pedagogian egindako urratsekin batera baita, ezbairik gabe, sektorean zuzen-zuzenean partaide direnen –irakasleen eta teknikarien– prestaketa gero eta hobearrekin.*

<b>Nork</b>	<b>Norbanakoak</b>	<b>Xedeak/ hipotesiak/ ikerketa galderak</b>	<b>Prozedura eta neurpideak</b>	<b>Ondorioak</b>
Perales, J. 1989.	Gipuzkoako udal euskaltegietako 434 ikasle heldu.	Euskara ikasteko motibazio eta jarreraren azterketa.	Galdesorta-teknika. Anova analisiak, T-test eta Ji karratuak. Jarrerei dagokienez, euskara-hiztunen aurreko jarrerak hartu ziren kontuan eta errendimendua irakasleak emandako kalifikazioa izan zen.	Ez zen korrelazio esanguratsurik ageri hiztunen aurreko jarreraren eta errendimenduaren artean.
Amonarriz, K. 1996.	EAEko 2.849 heldu, 20 urtetik 39ra bitartekoak.	Helduen euskalduntzean eskaintza eta eskariaren egoera aztertu eta etorkizunerako aurreikuspenak egitea.	Galdesorta-teknika.	Euskararekiko jarrerak gehienbat aldekoak eta oso aldekoak dira (%76); laurdena inguru ez alde ez kontrakoa da (%23) eta oso gutxi dira kontrakoak (%1).
Agirre, S. & Perales, J. 1996.	EAEko euskaltegietan euskara ikasten ziharduten 1.024 funtzionario.	Euskara ikasteen, Euskal Herriko administrazio-etako langileen satisfazio-maila aztertzea.	Galdesorta-teknika. Ohiko tratamendu estatistikoa. Galdera irekiak: edukiaren analisia.	Langile ikasleak, oro har, konforme daude eskaintzen zaien euskara-irakaskuntzarekin.
Vilches et al., 1997.	Sei eztabaida-talde hainbat gizarte-erlotoakoak: administrazioakoak, industriakoak, etxeoandreak, gurasoak, gazte langabetuak...	Udal euskaltegien komunikazio eta marketing-erako jarduera-ildoak zehazteko ikerketa. Aztergaia motibazio eta jarrerak izan ziren.	Metodologia kualitatiboa. Sei eztabaida-taldeek, profil ezberdinen arabera osatuek, sei saiotan eginiko iruzkin eta eztabaiden analisia egin zen.	Mahaigaineratutako iritzia, jarrera eta sentipenen arabera eskariaren nondik norako nagusiak mugatu eta, halaber, horren arabera, eman litezkeen erantzunak aurreikusten dira.
Perales, J. 1997.	EAEko euskaltegietan euskara ikasten diharduten funtzionarioen 197 irakasle.	Administrazio publikoetako langileen euskara-irakasleen usteak azaleraztea.	Galdesorta (galdera itxiak eta irekiak). Ohiko tratamendu estatistikoa eta edukiaren analisia.	Irakasleen %47,5 diote beren ikasleek euskararen aldeko jarrera dutela; %19,7k ez aldekoa ez kontrakoa eta %32,6 kontrakoa dutela diote.
Arratibel, N. 1999.	Bi lagin baliatu zituen ikertzaileak a) euskaltegietan ari ziren 566 euskara-ikasle heldu eta b) transmisio-kanpainan <sup>9</sup> ikasten ziharduten 451 ikasle heldu	Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialen ikerketa. Motibazio eta jarrerak, besteak beste, aztertuz.	Galdesortaren teknika. Datuak hainbat analisi estatistikoren bidez aztertu ziren: ANOVA, Anlisi diskriminanteak, LISREL analisiak...	LISREL analisiak lehenengo laginean bistaratu zuenez, aurreikusitakoaren bidetik, "soziodemografia" eta "sare sozialak" aldagai latenteekin batera beste aldagai latente bat, "aldagai psikosoziala" (euskalduna-vasco aldagaia + euskaldunen aurreko jarrerak + motibazio-noranzko integratiboa), ageri zen menpeko aldagaiaren zuritzaile (euskara-ezagutzaren autoebaluazioa + zein urratsetan ari ziren). Transmisio-taldeetako ikasleen kasuan, berriz, ezin izan zen eredia egiaztatatu.

Ondorio orokorra izan zen Euskal Herrian, oro har, aldeko jarrera dagoela euskararen aurrean baina hizkuntzaren alde egoteak ez duela ziurtatzen hizkuntzaren alde egitea. Ezin ziurta daiteke, esaterako, jarrera aldekoa duenak euskaltegi batean matrikula egingo duenik. Euskara-ikasleek ere aldeko jarrera dute euskararen aurrean baina, lehenengoaren haritik, alde egoteak ez du, halaberharrez, lorpen-emaizta jasoagorik ekartzen.

Aipatzekoak ere badira 1994an Jauregik burutu zuen azterlan aitzindari baten fruituak (Jauregi, 1994). Euskara esparru formalean ikastetik giro naturalean erabiltzera dagoen jauzia kezka-iturri izaki badago, jadanik, beste ikerketa-lerro bat euskalduntze-alfabetatzearen ikasgelak eta erabilera uztartzen dituen, baita jardunbide gero eta zabalagoa dakarrena ere: *Kuadrillategi egitasmoa*. Egitasmo hori hainbat herritan ari da garatzen, eta, Jauregiren azterlan hura du oinarri (Jauregi, 1994, 1996, 2003; Jauregi et al., 2000; Egizabal, D., Jauregi, P., Huegun, A. 2004; Egizabal, 2004).

Egizabal *et al.*-ek diotenez, 2001-2002 ikasturtean zortzi udalerritan abiarazi zuten *Kuadrillategi egitasmoa* (Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Beasain, Deba, Bergara eta Aretxabaleta). Eta urtebete geroago beste hiru herri bildu ziren egitasmora (Atarrabia, Uharte eta Burlata).

Izan ere, helburua ez da gehiago norberaren burua euskalduntzea, baizik eta talde-kideen arteko harremanak euskalduntzea (norberaren burua euskalduntzea helburu honen zati baino ez litzateke izango). Hizkuntz ohiturak aldatzeak ardatzen du estrategia eta euskara bera erabiltzea da prozesuaren eragilea (Jauregi, 1996: 44).

Programa horren bidez, koadrila naturaletako lagunak elkarren artean euskaraz hitz egiteko ohitura hartuz joan daitezten lortu nahi da. Baina egitasmoa hedatuz doa eta administrazioko langileen artean ere hasia dira lehenengo urratsak egiten (Unanue, 2006).

Hala berean, motibazio eta jarrerez gain, ikaslearen baitako bestelako aldagaiak ere: kontzientzia metalinguistikoa, ikas-estrategiak, antsietatea, ikas-estiloak etab. aztergai ditugu euskalduntze-alfabetatzean (Perales, 1997a, 1997b, 2000, 2001a, 2001b; Perales, Cenoz, 2002; Pikabea, 2002, 2004).

Geure azterlanean, erregresio-analisietan, aurkitu genuen kontzientzia metalinguistikoa zela aldagai askeen artean lorpen-emaiztekin loturarik handiena zuena. Kontzientzia metalinguistikoa da hizkuntzari objektu gisa begiratzeko ahalmena, funtzio komunikatiboa bazter utzita. Emaizta horrek hainbat galdera piztu zizkigun gogoan harturik gero eta ozenago entzuten dela beste inguruneetan hizkuntzaren formari erreparatzea komeni dela diotenen ahotsa; bai baitzirudien, komunikazioaren komunikazioaz, hizkuntzaren forma lantzeko ariketak zeharo zokoratu behar zirela. Pikabeak, bere aldetik, bost hilabetez iraun zuen esku-hartze programa abiarazi zuen ikasleen ikas-estilo eta ikas-estrategiak jorratu eta ikasgelatik kanpoko erabilera-ohituretan zuten eragina aztertzeko. Ez zuen loturarik atzeman idazmenari eta irakurmenari dagokionez, bai ordea, mintzamenaren arloan.

---

*Gaur egun ikerketa-lerrotzat har genezakeen azterlan-bilduma gero eta naroagoa ari da osatzen gurean: motibazio eta jarrerei buruz ari gara. Motibazioa da ez bairik gabe euskalduntze-alfabetatzean gairik ikertuenetakoa. Motibazioa aspaldidanik izan da kezka-iturri irakasleonean artean.*



---

*Aurrekoaren haritik,  
motibazioaren alorreko  
aldagaiaren eta lorpen-  
emaitzen arteko erlazioa  
bistaratu denean,  
motibazioaren  
intentsitatea eta  
motibazioaren noranzko  
integratiboa dira lorpen-  
emaitzekin lotura  
erakutsi duten aldagaiak.*

Aztertua da, halaber, euskalduntze-alfabetatzea ikuspegi historikotik metodoen ezaugarriari erreparatuz (Larrea, 2002, 2003). Larreak, lan horretan, 1956tik 1986ra bitartean hogeita hamar urtez helduen euskararen irakaskuntzan erabilitako metodoen bilakaerari begiratu zion. Bilakera-ikerketa horretan, metodo berrietan, Europatik izandako eraginak eta metodoen arteko elkarren eragina ere jorratu zituen garai hartako egoera politikoa eta soziala aintzat harturik.

Ezeizak, ikas-materialak aztertzeke metodologia bat diseinatu zuen (2004, 2006a). Metodologia horren bidez euskara irakasteko materialak ez ezik beste hizkuntzak irakastekoak ere azter daitezke. Tresna baliotsua da hainbat eta hainbat adierazle-multzo kontuan hartzen dituen ikas-materialak xehe-xehe aztertzeke. Euskarari dagokionez, *AISA*, *Aditu* eta *Ostalaritza* ikas-materialak aztertuak ditu metodologia hori baliatuta (Ezeiza, 2006b, 2006c, 2007).

Hasiak dira, bada, euskalduntzearen esparruan bete-betean lekututako lehenengo doktore-tesiak argitaratzen. Eta badatoz beste batzuk: euskalduntze-prozesuan eragiten duten faktoreei buruz, esaterako, (Otegi, abian) edo irakasleen prestaketaren alorrean partaidetza pasiboak dituen ondorioen azterketa Internet bidezko euskarri telematikotetan (Murua, abian).

Badira bestalde, gero eta ugariago, beste lanak: memoria, tesina, graduondoko ikasketen amaiera-lan, bekaz lagundutako azterlanak etab. (HIZPEI, Euskara Diploma, Masterrak, HIZNET...). Lan horiek dutena baino hedapen zabalxeagoa mereziko lukete. Ez baitira, tamalez, beti errazak eskuratzen eta liburuzaintzat edo web-eko datu-bilduma egileentzat ere ez da erraza adierazle egokien pean sailkatzen. Hedapen murriztekoak dira eta liburutegietara iristen direnean *Literatura gris* izenpean erregistratzen dira horietako asko eta asko. Eta ikertzaile hasi berriak edo ikasle tesina-egileak galdurik samar ibiltzeko arriskua du horrelako lanak aurkitzeko. Lan horiek oso ikergai bestelakoak izan ditzakete, eta, jomugetan bederen, bat ez etortzeak zaildu egiten du ikerketa-lerro komunaren eraikuntza han-hemenka jotako mailukada elkarren loturarik gabekoen itxura hartuz.

#### **4. NORANTZ GOAZ?**

Hainbat eta hainbat urrats egiten ari dira. Ikertzailetako askok, gainera, lotura zuzen-zuzena dute euskalduntze-alfabetatzearekin, eskolak ematen baitituzte euskaltegietan. Beste batzuk euskara-irakasle ohiak dira.

Ikuspegi praktikotik begiratuta estimatzekoak lirateke azterlan kualitatiboak, luzetara egindako ikerketak ere bai, esku-hartze programadunak eta, ildo beretik ez bairik gabe, ikasgelan bertan burututakoak. Hori xe dugu alderdirik ahulena. Ikasgelan gertatzen denari arretaz begiratu behar zaio, tentuz jaso, sistematizatu eta sakonetik gogoeta egin. Ikasge-

letan irakasteko teknika, irakas-estrategia desberdinak erabil daitezke, datu objektiboak lortu eta emaitzak alderatu. Esan gabe doa, irakasleak berak dira partaiderik funtsezkoenak ikasgela barruko ikerketa-arlo horri ekiteko. Eta, gaur egun, sare telematikoak lagun, bidea erraztu egiten da hainbat ingurunetatik eskuratutako datuak elkarrekin jorratzeko.

Ikerketak ugariagoak eta kalitate handiagokoak dira. Bistan da hori. Baina, euskalduntze-alfabetatzearen alorra etengabe ari da aldatzen. Ikasleriaren tipologia, esaterako: gero eta adin altuagoa, gero eta zailtasun handiagoak egunero hainbat orduz euskara ikasten jarduteko... Eskariak hala aginduta eskaintza ere gero eta berezituagoa da: ikasle-multzo jakinentzako ikas-materialak eta ikastaldiak (enpresa-munduko ikasleria, administrazio publikoko langileria (osakidetza, ertzaintza, etab.); urrutiko ikaskuntza, autoikaskuntza, hizkuntza erabiltzeko programak: egonaldiak familia euskaldunetan, mintzalaguna, mintzakide, berbalagun... eta antzeko programak. Ordenagailuz lagundutako ikastaldiak, Diasporako ikasleria, Internet bidezko ikastaldiak, etab. Kontua ez da horiek ate joka daudenik baizik eta etxe barruan ditugula jadanik.

Esan genezake hasita gaudela, zorionez, hainbat galdera egiten euskalduntze-alfabetatzean, hainbat arazo ikusten... halako arloetan non orain dela hogeita bost urte ezta arlorik ere ez baikeneukan.■

## BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, S. & PERALES, J. (1996): Euskal Herriko administrazioetako langileen satisfazio-maila euskara ikasteen. *Administrazioa EUSKARAZ* 15: 12.
- AMONARRIZ, K. (1996): Helduen euskalduntzea: eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurrikuspenak. *Bat. soziolinguistika aldizkaria* 19: 63-78.
- AMUNDARAIN, D. (1991): Gipuzkoan Alfabetakuntza. In Letrakit (ed.) *Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990)*. *Kronika laburra*. Letrakit.
- ARRATIBEL, N. (1994): Hizkuntz jabekuntzarako eredu psikosozialak. Motibazioaren errola. In Intxausti (ed.), *Euskararen alde motibazioak*. Donostiako Udako XIII. ikastaroak. 1994 uztaia. EHU.
- ARRATIBEL, N. (1999): *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren errola*. Tesi doktora EHU/UPV.
- EGIZABAL, D. (2004): Kuadrillategi 2001-2003. Koadrilletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak. Caja Laboral – Euskadiko Kutxa.
- EGIZABAL, D., HUEGUN, A., JAUREGI, P. (2004): Kuadrillategi egitasmoa. *Bat. Soziolinguistika aldizkaria* 53: 103-111.
- ETXEBERRIA, A. (2005): Motibazioa, jarrera eta hizkuntz lorpena udal-langileen euskara-taldeetan. *Hizpide* 60: 3-44.
- ETXEBERRIA, F. (1999): *Hizpide – Monografiak* 3: 57-70.

---

*Ondorio orokorra izan zen Euskal Herrian, oro har, aldeko jarrera dagoela euskararen aurrean baina hizkuntzaren alde egoteak ez duela ziurtatzen hizkuntzaren alde egitea. Ezin ziurta daiteke, esaterako, jarrera aldekoa duenak euskaltegi batean matrikula egingo duenik. Euskara-ikasleek ere aldeko jarrera dute euskararen aurrean baina, lehengoaren haritik, alde egoteak ez du, halabeharrez, lorpen-emaitza jasoagorik ekartzen.*

**Geure azterlanean,  
erregresio-analisietan,  
aurkitu genuen  
kontzientzia  
metalinguistikoa zela  
aldagai askeen artean  
lorpen-emaitzekin  
loturarik handiena zuena.  
Kontzientzia  
metalinguistikoa da  
hizkuntzari objektu gisa  
begiratzeko ahalmena,  
funtzio komunikatiboa  
bazter utzita. Emaitza  
horrek hainbat galdera  
piztu zizkigun gogoan  
harturik gero eta ozenago  
entzuten dela beste  
inguruneetan  
hizkuntzaren formari  
erreparatzea komeni dela  
diotenen ahotsa; bai  
baitzirudien,  
komunikazioaren  
komunikazioaz,  
hizkuntzaren forma  
lantzeko ariketak zeharo  
zokoratu behar zirela.**

- EUSKO IKASKUNTZA – EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA (2007): Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/ident/eu/ident.pdf>.
- EZEIZA, J. (2004): La carta de navegación para la enseñanza de lenguas.. Cuestionario para el análisis de materiales de enseñanza a la luz de los criterios propuestos por el Marco común europeo de referencia. Memoria de investigación para la obtención del diploma de estudios avanzados. Universidad Antonio de Nebrija. Departamento de lenguas aplicadas.
- EZEIZA, J. (2006a): Analizar y comprender la topografía configuracional de los materiales de enseñanza de lenguas en una perspectiva de síntesis. Aplicación a los manuales para la enseñanza general de E/LE a adultos. Universidad Antonio de Nebrija. Tesis doctoral.
- EZEIZA, J. (2006b): Ikasle hasiberriei euskara irakasteko materialak (I): Hiru mugari gaitasun komunikatiboa jomuga. *Hizpide* 62: 3-30.
- EZEIZA, J. 2006c. Ikasle hasiberriei euskara irakasteko materialak (II): kontzientzia, autonomia, eta benetakotasuna ikusmiran. *Hizpide* 63: 65-83.
- EZEIZA, J. (2007. Argitaratze-bidean): Ikasle hasiberriei euskara irakasteko materialak (eta III): aukera metodologikoak. *Hizpide* 64.
- HABE (1997): Irakasleen prestakuntza beharrak. Barne-txostena.
- IKEI (2003): Bideragarritasun-plana. Kanpo analisia. Txostena.
- JAUREGI, P. (1994): Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia. Gazte talde baten kasua. Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztutako doktore-tesia.
- JAUREGI, P. (1996): Berezko taldeak: harremanak euskaldunduz norberaren burua euskaldundu. *Hizpide* 36: 44-53.
- JAUREGI, P. (2003): Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian (II). Hizkuntzazko jokaerak
- JAUREGI, P. (1999): *Hizpide – Monografiak* 3: 53-55.
- JAUREGI, P., EGIZABAL, D; HUEGUN, A; ETA BESTE (2000): Kuadrillategi. Gazteak eta euskara. Gazteen euskararen erabilera sustatzeko gida liburuan, 130-141. Lasarte-Oria. Hik Hasi.
- LARREA, K. (2002): 30 urte euskal kulturari 1956-1986: Euskalduntzea eta Alfabetatzea. EHU aurkezturiko doktore-tesia.
- LARREA, K. (2003): Euskara ikasteko metodoen bilakaera: 1956-1986. *Hizpide* 53: 3-20.
- MENDIGUREN, X. (Edizio prestatzailea) (1990): Jostirudiak-Irritza (Torbio-Alzaga). Klasikoak. Bilbo. Labayru Ikastegia.
- ODRIOZOLA, J. (1976): Alfabetatze kanpainak Gipuzkoan. *Anaitasuna* 311: 14-16.
- OTEGI, M. (2006): Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegi-tako ikasleen motibazioak. Ikerketa psikolinguistikoa. XI. Gerriko ikerlan-beka. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.

- PERALES, J. (1989): Euskara-ikasleen motibazio eta jarrerak. *Zutabe* 21: 9-50.
- PERALES, J. (1996): Euskaltegietan euskara ikasten uzteko arrazoien bila. Argitara eman gabeko azterlana.
- PERALES, J. (1997a): Administrazioko langileen euskara-irakasleen usteak. *Hizpide* 39: 31-50.
- PERALES, J. (1997b): Ikasle helduen herstura euskara ikasteen. *Hizpide* 37: 32-52.
- PERALES, J. (2000): Euskara-ikasle helduen ikas-prozesua: ikaslearen baitako zenbait aldagaien eta arrakastaren arteko erlazioa. Doktore-tesia EHU/UPV.
- PERALES, J. (2001a): Gainbegirada bat hizkuntz jarrerei Euskal Herrian. *Bat. Soziolinguistika aldizkaria* 40: 89-110.
- PERALES, J. (2001b): Kontzientzia: metalinguistikoa euskara-ikasle helduen artean. *Tantak* 25: 77-96.
- PERALES, J. (2004). Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta. *Uztaro* 50: 23-43.
- PERALES, J. CENOZ, J. (2002): The effect of individual and contextual factor in adult second-language acquisition in the Basque Country. *Language, culture and curriculum* 15/1: 1-15.
- PEREZ DE ARRIBE, J. (1986): Hizkuntz jarrerak: motibazioak Gasteizen. In J. Ruiz Olabuenaga & J. A. Ozamiz (edk.), *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Ttartalo.
- PIKABEA, I. (2002): Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak. Euskararen ikaskuntzan. Eta erabilera-ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat. Doktore-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen-zerbitzua.
- PIKABEA, I. (2004): Ikas-estiloetan eta ikas-estrategietan oinarritutako esku-hartze programa bat. *Hizpide* 55: 3-19.
- PRITCHARD, L. & NEWCOMBE, R. (2001): Adult language learning: the effect of background, motivation and practice on perseverance. *International Journal of Bilingual education and Bilingualism* 4/5: 332-354.
- SIADCO (1978): Estudio sociolingüístico del euskera. Euskarización y alfabetización de adultos. Gau-eskolak.
- UNANUE, A. (2006): Administrazioko atal elebidunetan hizkuntza ohituretan eragiteko plana. Lasarte-Oriako Udaleko esperientzia: planteamendu teorikotik aplikazio praktikora. Lasarte-Oriako Udala. Euskara zerbitzua.
- VILCHES, C., ARANA, Y. ALTUNA, O. & VALIN, G. (1997): *Udal-euskaltegien komunikazio eta marketing-erako jarduerak ildoak*. CYP ikerkuntza taldea. Gipuzkoako Udal-euskaltegien eskariak egindako txostena, argitara eman gabea.
- ZALBIDE, M. (1977): Euskararen Irakaskuntza Gipuzkoan. *Jakin* 2: 126-134.
- ZINKUNEGI, J. (1995): Euskararen transmisioa Euskal Autonomia Elkartean. *Bat. Soziolinguistika aldizkaria* 15: 75-88.

---

*Hasiak dira, bada, euskalduntzearen esparruan bete-betean lekutatuko lehenengo doktore-tesiak argitaratzen. Eta badatoz beste batzuk: euskalduntze-prozesuan eragiten duten faktoreei buruz, esaterako, (Otegi, abian) edo irakasleen prestaketaren alorrean partaidetza pasiboak dituen ondorioen azterketa Internet bidezko euskarri telematikotetan (Murua, abian).*

***Ikasgelan gertatzen denari arretaz begiratu behar zaio, tentuz jaso, sistematizatu eta sakonetik gogoeta egin. Ikasgeletan irakasteko teknika, irakas-estrategia desberdinak erabil daitezke, datu objektiboak lortu eta emaitzak alderatu. Esan gabe doa, irakasleak berak dira partaiderik funtsezkoenak ikasgela barruko ikerketa-arlo horri ekiteko. Eta, gaur egun, sare telematikoak lagun, bidea erraztu egiten da hainbat ingurunetatik eskuratutako datuak elkarrekin jorratzeko.***

## OHARRAK

1. 1) Ikasleak helduak dira; 2) Euskara H2 gisa ikasten ari dira (alfabetatzeko taldeek, gero eta gutxia-gio izanik, galdu dute erabat lehen zuten pisua); 3) Euskara ukipen-egoeran ikasten ari dira. Eta euskaldunik gehien gehienak elebidunak ere badira (euskaldun elebakarrak ere ia-ia desagertutaz jo daitezke); 4) Euskara ez da hizkuntz indoeuroparra; 5) euskara irakaskuntza formalaren esparruan irakasten da, euskaltegietan. Agian, zirriborratutako egoera horretara gehien hurbiltzen direnak galestarrak dira. Euskalduntze-alfabetatzea erreferentzia da haientzat eta ia urtero etortzen dira hango irakasle, aditu, teknikariak... hemengo berri jakiteko.

2. Nahiz eta historiari begirata beti aurkituko dugun norbait euskara helduaroan ikasi duena euskaltegi sorrera 1960ko hamarkadan lekutu dezakegu. Rikardo Arregik 1966ko urtarrilaren 17an eskutitz bat bidali zion Joxe M<sup>o</sup> Satrustegiri, Euskaltzaindiko Idazkariari, alfabetatzea Euskaltzaindiak bere gain har zezan. Honela zioen: “gazte batzuk prest gaude irakurtzen eta idazten irakasteko; euskaraz irakurtzen eta idazten ez dakiten euskaldunei hori egiten erakusteko jokabide batean pentsatu dugu” (Amundarain, 1991). Geroxeago, Juan San Martinek, Iñaki Beobidek, Mikel Lasak eta Rikardo Arregik berak 1966ko urtarrilaren 28an “Euskal Alfabetizazio kanpaina bat egiteko” proposamena egin zioten Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak eskaria onartu eta Alfabetatze Batzorde bat eratu zuen 1968an, 1969an berritu zuena.

3. Izan ere, HABEK sortu zituen lau euskaltegiak “pilotu” gisa zeuden aurreikusita. Bertan materialak, irakasteko bideak, teknikak sortu, saiatu eta, baliagarriak izatera, beste euskaltegietara zabaltzea zen asmoa. Baina, asmo horiek ezin izan ziren beti nahi bezain urrutir eman. Euskaltegi pilotuetan, gainerakoetan bezalaxe, egunerokoari (eskolak prestatu eta emateari, programazioak diseinatzeari...) egin behar zitzaion aurre. Irakasleek ez zuten ikertzaile-prestaketerik irakasle-prestaketa baizik (oposizio-lehiaketan parte hartzeko, gutxienez “D” agiria eta COU eta hiru urteko esperientzia euskalduntze-alfabetatzean eskatzen zen). Euskaltzaindiaren “D” agiriak, geroko EGAK ez bezala, euskal hiztun gaitasuna ez ezik irakasteko gaitasuna ere aitortzen dio agiridunari.

4. 1996 urteaz geroztik Hizpide izenaz argitara emana.

5. Garai hartako argitalpenak ere badira: Idirin, Agirre, I; Ensunza, A; Berrio-Otxoa, K. 1992. Eusker ikasteko motibazioak. Motivaciones para el aprendizaje del euskera. Literatura grisa. HABEko liburutegia. Baita Intxausti, J. 1994. Euskararen aldeko motibazioak. Donostiako Udako XIII. Ikastaroak. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen zerbitzua.

6. Gaur egun, ondorio horiek dauden-daudenean mantendu arren, bai erantsi genezakeela, ñabardura-mailan, azpimarratzekoa dela (Perales, 2004: 41) noranzko horiek (integratiboa eta instrumentala) elkarrekin nahasita agertzen direla. Asko dira euskara euskaldunekin bat egiteagatik ikasi eta, aldi berean, maila bertsuan, lan bat eskuratzeko edota ikasketa batzuk gainditzeko euskarak duen balio-ari begiratzen diotenak. Hala berean, bi noranzko horien proportzioak ere alda daitezke zein ikasle-laginekin egiten dugun topo. Azterketa baten gertutasunak nabarmen eragiten diezaioke noranzko instrumentalari. Erretiroa hartutako ikaslez osaturiko talde batean, berriz, noranzko integratiboa gailendu daiteke nabarmen-nabarmen (ilobekin euskaraz aritzea, ipuinak kontatzea...).

7. 2003 urtean HABEren eskariaz lan bat burutu zuen IKEIk euskalduntze-alfabetatzean alorra aztertzeke. Lan horretan, besteak beste, telefono bidezko inkesta bat egin zitzaizen EAeko 2000 norbanakori. Lagina hiru multzotan zegoen sailkatuta 1) inoiz euskaltegitan jardun gabeak 1.200 norbanako; 2) ikasle ohiak: 400 norbanako; eta 3) une horretan ikasten ari zirenak: 400 norbanako. Galdera bat euskara ikasteko arrazoiei zegokien. Azpilagin osoari begirata (800 norbanako) %44,7k erantzun zuen euskara i kastea erabaki zutela soilik hemengo hizkuntza zelako. Baina, une horretan ikasten ziharduten ikasleen multzoari erreparatu, kopuru hori %16,8ra jaisten da eta arrazoi instrumentala eta integratiboak bateratsu eraginda ikasten dutela diotenak %30,4 dira.

Zergatik erabaki duzu euskara ikastea?	Ikasle ohiak	Ikasleak	Orotara
Soilik lanarengatik	18	11,5	17,1
Lanarengatik eta hemengo hizkuntza ere delako	6,2	19	7,9
Biak berdin	10	30,4	12,6
Hemengo hizkuntza delako eta lanarengatik	17	22,3	17,7
Soilik hemengo hizkuntza delako	48,9	16,8	44,7
Azpilagin osoa	100	100	100

*Ehunekotan*

8. Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Kultur Erakundeak "Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran" azterlanaren berri eman zuten 2007an. Euskal Herri osoko 3.822 norbanako erantzun zioten galdesortari. Galderen arteko bat euskara ikasteko arrazoiei zegokien. Emaitzen arabera, inkestatuen %41k dio euskara ikasteko edota ikasi nahi izateko arrazoia dela "herri honen hizkuntza izatea". Bigarren tokian agertzen da (%34) "euskaldunekin komunikatu ahal izatea". Txosten osoa ikusteko jo helbide honetara:

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/ident/eu/ident.pdf>

9. Transmisio-kanpainaren zer-nolakoan berri jakiteko ikus Zinkunegi, 1995.